XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5013

AGINDUA, 2014ko azaroaren 7koa, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinen bidez aldi baterako arautzen baita txipiroia (Loligo spp) argi artifiziala erabiliz arrantzatzea Euskal Autonomia Erkidegoko barne-uretan.

Arrantza egokitzat eta arrazionaltzat hartzen da, legez baimendutako bitarteko edo tresnen bidez eginda, jardueraren errentagarritasun ekonomikoaren eta itsasoko baliabide eta ekosistemen babesa eta kontserbazioaren arteko oreka eutsia bermatzen duena.

Itsasertzeko arrantzako zenbait arau ezartzen dituen Nekazaritza eta Arrantza Saileko 1985eko azaroaren 27ko Aginduaren bidez, debekatzen da erakarpen-elementu gisa argi artifiziala erabiliz molusku zefalopodoak arrantzatzea.

Debeku hori kirol-arrantzan aritzen direnei zein arrantzale profesionalei aplikatzekoa da. Hala ere, Kantauri itsasertzeko beste autonomia erkidegoetako kanpo- zein barne-uretan, zenbait ontziri baimena ematen zaie erakarpen-elementu gisa argia erabiliz txipiroia arrantzatzeko.

Agindu horren xedea da artisau-arrantza egiten duten neurri txikiko zenbait ontziri baimena ematea erakarpen-elementu gisa argi artifiziala erabiliz txipiroia arrantzatzeko, baina zenbait baldintza ezartzen dira, bateragarri egiteko lehenago aipatutako errentagarritasun ekonomikoaren eta itsasoko baliabide eta ekosistemen kontserbazioaren arteko oreka-printzipioa. Halaber, arau honen bidez, arrantza-jarduna dibertsifikatzeko aukerak zabaldu nahi dira Euskal Autonomia Erkidegoan artisau-arrantzan diharduten ontzietarako.

Arau hau esperimentala da eta urtebeteko iraupena izango du, eta, aldi iragankor horretan emaitzak ebaluatu eta gero, gisa honetako arau iraunkorrago bat ezarri nahi da, halakorik behar bada.

Azaldutako guztiagatik, eta arrantza-erakunde profesionalei kontsulta egin eta gero, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da, urtebeterako, ontzi profesionaletarako arautzea erakarpen-elementu gisa argi artifiziala erabiliz txipiroia (Loligo spp) Euskal Autonomia Erkidegoko barne-uretan arrantzatzeko baldintzak.

2. artikulua.– Modalitatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-uretan arrantzatzeko baimenaren titular diren ontzi profesionalek soilik arrantzatu ahal izango dute txipiroia (Loligo spp) argi artifiziala erabiliz, eta ontziok tresna txikiko arrantzaren erroldan egon beharko dute, eta modalitate horretarako prestatuak izan.

Salbuespenez, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak baimena eman ahal izango die tresna txikiko arrantzaren erroldan ez dauden ontziei, aurretik eskabide justifikatua helarazita, betiere.

3. artikulua.– Tresnak.

1.– Txipiroia (Loligo spp.) potera edo arrain artifizialen bidez arrantzatuko da.

2.– Eskuko txirrikak, hidraulikoak eta elektrikoak erabili ahal izango dira.

4. artikulua.– Eguneko gehieneko arrantza.

Egunean, 30 kg arrantzatu ahal izango ditu gehienez erroldatutako eskifaia-kide bakoitzak.

5. artikulua.– Argiak erabiltzea.

1.– Azaleko argiak soilik erabili ahal izango dira, eta debekaturik dago urpeko argiak erabiltzea.

2.– Ez dira urpeko argitzat hartuko potera edo arrain argitsuak edo fosforeszenteak.

6. artikulua.– Merkaturatzea.

Arrantzatutakoa merkaturatzeko, lehen salmenta eta saltzeko produktuen merkaturatzea arautzen duten arauak errespetatuko dira. Horretarako, eta aplikatzekoak diren gainerako arauei kalterik eragin gabe, lehen salmenta lonjetan edo baimendutako establezimenduetan egingo da, eta lehen salmentaren oharra helaraziko da.

7. artikulua.– Neurriak bertan behera uztea eta aldatzea.

Agindu honetan araututako neurriak bertan behera utzi eta aldatu ahal izango ditu behin-behinean Arrantza eta Akuikultura zuzendariak, arrazoi biologikoek edo teknikoek hala agintzen dutenean.

8. artikulua.– Tresna txikien araudia.

Agindu honetan xedatu gabeko guztiari dagokionez, gainerako indarreko araudia aplikatuko da, eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzean tresna txikiekin egiten den arrantza erregulatzen duten arauak.

Ontzia ez bada tresna txikiekin egiten den arrantzaren modalitatekoa, agindu honetan xedatu gabeko guztiari dagokionez, ontziaren modalitatea erregulatzen duten arauak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ahalmena ematen zaio Arrantza eta Akuikulturako zuzendariari agindu honetan xedatutakoa gauzatzeko behar diren neurriak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, urtebetez.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko aukerako errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administra-

zioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 7a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.